



# APP Inventor. Sortu zure appak

## Ikastaroaren deskribapena:

APP bat sortzea ez da jada programatzaileen lana soilik. Lan hau errazten dizkiguten hainbat aplikazio daude. Ia programazio ezagutzak izan gabe eta APP Inventor-i esker, gure APPak sortu eta gure smartphonetan instalatu ahal izango ditugu.

Jokoak, agendak, ordulariak... Zein da sortu nahi duzun APPa?

- Ikastaro mota: **Urrunekoa.**
- Iraupena: **4 aste.**

## Ikastaroaren helburuak:

- Programazio oinarrizko ezagutzak lortzea.
- APP Inventor erabiltzen ikasi.
- Smartphonearentzako aplikazio bat sortu, APP bat.

## Ikastaroa zeini zuzenduta dago:

KZgunea erabiltzaile orori.

## Baldintzak:

- Ordenagailuaren eta Interneten maneian oinarrizko ezagutzak izatea.
- Internetera konexioa duen ordenagailu, tablet edo smartphone bat izatea.

Gomendagarria da Skype kontua eta mikrofono bat izatea bideotutoretzatan parte hartzeko.

## Ikastaroaren edukiak:

1. GAIA. Sarrera. Zer da APP Inventor?
2. GAIA. Zer da gailu mugikor bat?
3. GAIA. APP Inventor-en tresnak
4. GAIA. APP bat sortu APP Inventor erabiliz